BBDW21

BIDEGURUTZEAK ETA TRANTSIZIOAK

2021.11.18/25

Bilbao

Bizkaia beaz

United Nations Educational, Scientific and Cultural Organization

BILBAO city of design

BILBAO BIZKAIA DESIGN WEEK

Zer da?

Bilbao Bizkaia Design Week Bilboko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimen bat da. Horren bitartez, sormen-industriak sustatu nahi dituzte, lurraldearen ekonomia garatzeko eta nazioartean proiektatzeko faktore gisa.
2014. urtean Bilbo UNESCOren Sormen Hirien sarean sartu zenetik, urtero galdu ezin dugun hitzordu bat da.

Ekimenaren bitartez, sormen-sektoreen lana gerturatu nahi zaie gainerako sektore ekonomikoei eta gizarteari, bai eta zeharkako jarduerak sustatu, gero eta publiko zabalagoak erakarri eta networking eta ezagutza-trukea erraztu ere. Horrela, ikustera emango da Bilbo Diseinuaren UNESCO hiria dela, baita ere eragin gero eta handiagoa lortu Bizkaiko ekonomia- eta gizarte-ehunean.

BBDW21 GAIA

BIDEGURUTZEAK ETA TRANTSIZIOAK

«Inoiz baino gehiago, sormenari eta berrikuntzari lotutako pentsamendua behar dugu, eta irtenbideak bilatu, geure buruak egunero-egunero aurre egiteko ditugun berdintasun ezaren eta zaurgarritasunaren erronketatik harago ikusteko. Sormen-industriak sormenezko ekonomiaren arima dira, eta era horretan laguntzeko daude kokatuta».

Isabelle Durant,
Merkataritza eta Garapenerako Nazio Batuen Konferentziako (UNCTAD) idazkari nagusi ondokoa.

Esparru guztietatik premiaz jorratu behar diren erronka handien une historiko bat bizitzen ari gara. Klima-aldaketak, osasun-, ekonomia- eta gizarte-krisiak, biztanleak zahartzeak, aurrerapen teknologikoek eta eraldaketa digitalak ***bizitzeko, egiteko eta izateko modu berriak aztertzera*** *garamatzate (iraunkorragoak, inklusiboagoak eta sortzaileagoak), bai eta izaki bizidun* ***guztiontzako partekatutako etorkizun atsegin eta seguruagoak irudikatzera eta horietara jotzera*** *ere.*

Testuinguru honetan, kultura- eta sormen sektoreetako eragileoi (pertsonak eta erakundeak) inplikatzeko eta modu proaktiboan parte hartzeko eskatzen digute, betiko diziplinetatik eta sortzen doazenetatik proposatuz, artearen, kulturen, sormenaren, gizartearen, zientziaren eta teknologiaren jardunak gurutzatuz, eta, nola ez, sormen-sektoreen artean elkarrekin gurutzatuz.

Aurtengo gaiaren abiapuntua IGARO kontzeptuaren inguruko hausnarketa da, zeharka eta bidegurutze organiko edo erradikalak sortuz igarotzea, EGITEN hasteko lekuak izan daitezen.

Prozesuen, produktuen eta zerbitzuen "linealtasuna" ahaztea. "zirkulutasunetik", lankidetzatik eta hibridaziotik berritzaileak izateko. *Beste diziplina batzuetatik eta beste diziplina batzuekin ikastea, azken finean, gurutzatu eta nahastea erronkak beste modu batean jorratuko dituzten proposamen baliagarrietara igarotzeko.*

Zer gertatuko litzateke filosofiaren kontzeptuak diseinuaren prozesuan sartuko bagenitu? Eta artisautza adimen artifizialarekin nahastuko bagenu? Zer sortuko litzateke ikus-entzunezko komunikazioa, diseinu parte-hartzailea eta iraunkortasuna uztartuko bagenitu? Bideo-jokoen enpresak eta industria-enpresak gurutzatu ahal izango lirateke balioa sortzeko? Arteak, diseinuak eta teknologiak biztanleen zahartzearen erronka jorratu ahal izango lukete?

BBDW21 ekimena ***hausnartzeko, eztabaidatzeko eta elkarrekin sortzeko espazio bat da****, eta bidegurutze horiek denboran askatzeko modua landu nahi da, egiteko modu berrietarako, aukera berrietarako eta etorkizun berrietarako benetako trantsizioa sortzeko.*

BBDW21 GAIA

BIDEGURUTZEAK ETA TRANTSIZIOAK

«Gaur aukeratzen dugunak eragin zuzena du etorkizunean, erantzukizun handia da».

Kathy Krumpe, COO Future State

«Diseinua ongizatearen demokratizazioaren eraldatze esponentzialeko bektorea izan daiteke, birziklatu daitezkeen zerbitzu eta produktu jasangarri berriak diseinatuz, etorkizun hobea irudikatuz, balio erantsia sortuz, pobrezia murriztuz eta oinarri-oinarrizko zerbitzuak eskuratzea hobetuz, hala nola osasuna, sormen-hezkuntza, hiri handietako mugikortasuna eta energia garbi eta berriztagarria».

Allesandro Manetti, IED Barcelona-ko zuzendari nagusia

SORMEN ESPARRUAK

ETA AUKERA-LURRALDEAK

Aukera-lurraldeak:

- Eraldaketa digitala
- Zerbitzu aurreratuak
- Zaintzak
- Osasuna
- Zahartzea
- Aisialdia
- Jasangarritasuna
- Zirkulatasuna
- Garapen jasangarrirako helburuak
- Parte hartzea
- Prestakuntza

ANIMAZIOA

ARKITEKKTURA

ARTISAUTZA

IKUS-ENTZUNEZKOAK

DISEINUA

ILUSTRAZIOA

INTERIORISMOA

MAKER MUGIMENDUA

MODA

PUBLIZITATEA

TEKNOLOGIAK

BIDEO-JOKOA

IGAROTZEA

ELKARREKIN GURUTZATUZ

Zer gertatuko litzateke elkarrekin gurutzatuko bagina?

- Diseinua / Artea / Teknologia / Filosofia
- Zahartzea / Artea / Bideo-jokoak
- Industria / Ingurumena / Diseinua
- Bideo-jokoak / Adimen Artifiziala / Gauzen Interneta / Osasuna / Zientzia / Diseinua
- Arkitektura / Teknologia berriak / Zaintzak
- Ilustrazioa / Zientzia / Prestakuntza
- Diseinua / Ikus-entzunezkoa / Digitalizazioa
- Herritarrek parte hartzea / Diseinua / Generoa
- Jasangarritasuna / Komunikazioa / Artea / Diseinua
- Artea/ Artisautza/ Diseinua
- Moda / Teknologia berriak / Osasuna

Irudiak: 1. Oroi VR 2. Oscar Tomico 3. Enni Kukka 4. Elsa Casanova 5. Elissa Brunato 6. Ana Teresa Barboza 7. Arrate Rodriguez 8. Kathryn Larsen

DATAK

Egutegian BiDCek programatutako jarduerak adierazi dira, gainjarri ez daitezen; izan ere, garrantzitsua da BBDW21 ekimena hasi eta amaitzen denera arte gainerako jarduerak txertatu ahal izatea. Beste data batzuetan hasten diren jarduerak onartuko dira programazioan, betiere, jardueren zatiren bat azaroaren 18tik 25era garatzen den bitartean.

Osteguna, **azaroak 18**

Ostirala, **azaroak 19**

Larunbata, **azaroak 20**

Igandea, **azaroak 21**

-arratsaldez-
BBDW21 Irekiera
Bidegurutzeak eta trantsizioak

Astelehena, **azaroak 22**

Asteartea, **azaroak 23**

Asteazkena, **azaroak 24**

Osteguna, **azaroak 25**

- goizez-
BBDW21 Itxiera
Hurbileko esperientziak

Eskerrik asko!

Laster informazio gehiago